



Pako Aristik lortu du Beterriko liburua 2004 saria

ASTEASU ▶ 'Gauza txikien liburua' saritu dute; «euskal literaturaren datu pobreen» kezka azaldu du Aristik ▶ 5



Pako Aristi saria jasotzen Asteasuko alkatearen eskutik, Tapia diputatuaren aurrean. XABIER UBEDA/AIURRI



AINHOA LARREA

Euskararen aldeko arte erakusketa Atxulondon

ZIZURKIL ▶ Nafarroa Oinez-en eskultura erakusketa zabaldu dute; Euskal Herriko punta-puntako 17 artistaren lanak daude ▶ 4

Errementari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

LENTZERIA

NEREA
1952

AZPIKO ARROPA

Pijamak, bainujantziak,
azpiko arropa

Cebanc-Cdea
FORMACIÓN PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA
Berio Pasealekua, 50 - 20.018 Donostia
Tel.: 943 31 69 00 • Faxa: 943 31 64 82

Profesionalak hezituz

<p>OSTALARITZA ETA TURISMOA</p> <ul style="list-style-type: none"> Jatetxea arloa. Sukaldaritza. Geozigntza eta okingintza. Jatetxea eta tabernako zerbitzuak. Sukalde-laguntzailea, I. maila. Ostata arloa. Bidai agentziak. Turismo-informazio eta merkataritza. 	<p>INFORMATIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> Informatika-sistemen administrazioa (A eta D). Informatika-aplikazioen garapena (A eta D). Sistema informatikoen ustiaketa.
<p>MERKATARITZA ETA MARKETINA</p> <ul style="list-style-type: none"> Nazioarteko merkataritza. Merkataritza-kudeaketa eta marketina. Merkataritza. 	<p>ADMINISTRAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> Administrazioa eta finantzak (A eta D). Administrazio-kuideaketa. Idazkaritza. Bulego-laguntzailea, I. maila.

Helbururik baduzu?

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
JARDUNALDIAK, ATEAK ZABALIK.
Maiatzaren 12an eta 14an, Orduak: 12:00etan eta 18:00etan.

LEKUA LUGAR ▶ TOLOSAKO UDALA

TOLOSA | MAIATZA | 9 - 10 - 11 | MAYO

JARDUNALDIAK
TURISMOA

JORNADAS
TOLOSALDEAN

INFORMAZIO GEHIAGO
MÁS INFORMACIÓN

943 69 74 13
www.tolosaldea.net

DIRIGIDO A:
Responsables de comercio, hostelería, alojamientos...
Técnicos en urbanismo y turismo.
Técnicos municipales de cultura y desarrollo local.

tolosaldea GARATZEN
EUSKAL GOB. GIPUZKOA
Euskadi

GIZARTEA ▶

Txinpartaren I. Pintura Lehiaketa

Tolosar guztiek hartu ahal izango dute parte, Alde Zaharra gai hartuta

I. ETXEBESTE

Bere 75. urteurrena dela-eta kultur ekimen ugari ar da egi- ten Txinparta elkarte, eta ho- rien harira, I. Pintura Lehiaketa antolatatu du, Felix Yarza zena- ren omenez, Udalaren eta Gi- puzkoa Donostia Kutzaren la- guntzarekin. «Tolosan jaio di- ren edo bertan bizi diren arti- sta guztiak» parte hartu ahal izango dutela iragarri dute an- tolatzaileak, Tolosako Alde Za- harra gai hartuta, betiere lehi- akide bakoitzak gehienez bi obra orijinal aurkezten baditu: teknika librez eta gehienez

73x60 cm-ko formatuan eginak izan behar dute.

«Epaimahaiak aukeratutako lanak elkartean lokalean ja- rriko dira ikusgai sanjoanetan, ekainaren 23tik 26ra izango den erakusketan», diote anto- latzaileak. Bertarako katalogoa behar bezala prestatzeko, le- hiakideek formulario bat aur- keztu beharko dute elkartean, beranduerena, hilaren 27an. Izen-abizenak, helbidea, telefo- no zenbakia, obren izenburua eta erabilitako teknika zehaz- tea beharrezkoa da. Era bere- an, beren obrak saldu nahi di- tuzten lehiakideek prezioa ere

adierazi beharko dute formula- rio horretan.

Koadroak ekainaren 15etik 17ra entregatu behar dituzte lehiakideek Txinparta elkar- tean, 19:00ak eta 21:00ak bitar- tean. «Obra asko egongo balira eta horren espazio arazoak sortuko balitu, batzorde anto- latzaileak lehiakide bakoitzeko obra bakar bat aurkezteko es- кату ahal izango luke», zehaztu dute Txinpartakoek, bestalde.

Lehiaketa parte hartzen du- tenen artekin hiru saridun hau- taturiko dituzte Txinpartakoek: lehenak 240 euro eta Txinparta elkartean 75. urteurrenoko

ikurra jasoko ditu; bigarrenak, 180 euro eta hirugarrenak 120 euro. Erakusketaren inaugura- zio egunean, ekainaren 23an, 18:30ean jakinaraziko du epai- mahaiak erabakia. Lehiaketa- rako izena elkartean edo Kul- tur Etxean eman daiteke.

Erlujuaren berrinaugurazioa

Jose Zubillagak elkarteanen- tzat egindako erloju berezia —alderantziz doa eta mikelite bat agertzen da— zaharberri- tu du Luis Orte bazkide erloju- laria. Izan ere, «zikina eta hon- datuta zegoen». Gaur berrina- uguratu dute, 12:30ean, elkartean bertan. Bestalde, Juan Garmendia eta Ander Let- amendia bazkideek bere his- toria azalduko dute; jarraian «mokadutxo» jango dugu.

HEZKUNTZA ▶

Samaniego, Ekoeskolen ordezkari gisa

Euskal Herria ordezkatzeko jardun dute Ekoeskolen Nazioarteko I. Topaketetan

IRATXE ETXEBESTE

Ekoeslolen Nazioarteko I. Topaketetan Euskal Herriko orde- zkari gisa parte hartu berri du Samaniego ikastetxeak Espainian. Apirilaren 21etik 24ra, Madril eta Segovian izan dira Arantxa Iruretagoiena Ingu- rumen Batzordeko arduraduna eta Silvia Mateo ikasketa burua ADEAC-FEEK antolatutu- tako ekimenean, eta haien hitz- etzetan. «Ekoeskolen 10. urteu- rrena ospatzea, bandera ber- deak banatzea, nazioarteko elkartruketa aurrera eramatea eta klima aldaketari buruzko konpromisoak eta ekintza pla- na adostea» izan dira, besteak beste, topaketa horien helburu behinena.

Ekimenean parte hartu du-

EUSKARA

Euskal Herriko partaide bakarrak izanik, «gure hizkuntza eta kultura islatzen saiatu gara topaketetan», esan dute

ten herrialdeen artean dira Espainia (Andaluzia eta Madril), Frantzia, Portugal, Italia, Malta, Eslovenia, Finlandia, Danimar- ka, Eskozia, Irlanda, Erresuma Batua, Txile, Belgika, Bulgaria, Turkia, Kroazia, Noruega, Sue- dia, Errusia, Kenya, Nigeria, Alemania, Finlandia, Maroko, Grezia, Lituania, Ukraina, Polo- nia eta Japonia, beste batzuren artean, eta Tolosako ikastetxe horretako arduradunek bada- kite jakin zergatik izan diren Euskal Herria ordezkari dute- nak: «Bi arrazoi nagusi daude gu gonbidatu izateko: batetik, 8 urte daramagula Ekoeskola proiektua aurrera eramaten —Bandera berdea jaso genuen 2000. urtean—, eta beste- tik gure eraikin berriko proiektu jasagarriak interes handia sortu duela, aitzindari iruditu zaielako».

Topaketetan jasotakoarekin oso gustura dira Iruretagoiena eta Mateo: «Oso esperientzia interesgarria izan da eta asko ikasi dugu: nazioarteko espe- rientzien trukaketaren bidez, ideia berriak hartzeko aukera izan dugu, eta beste herrialde-



Samaniegoko ordezkariak, Ekoeskolen Nazioarteko I. Topaketetan. HITZA

tako ingurumenaren egoera ezagutu dugu». Samaniegoko ordezkariak diote zenbait iraka- slerekin harremanetan jar- rraitzekotan geratu direla, eta harreman hori ikasleei zabaltzeko aukera ere ez dutela baz- tertzen.

Bestalde, eta Euskal Herriko partaide bakarrak izanik, «gure hizkuntza eta kultura isla- tzen saiatu» direla esan dute: «Topaketetako hizkuntza ofi- ziala ingelesez izan den arren, euskarazko hitz batzuk ere entzuz ahal izan dira eta hemo- gu joko batzuetan parte hartze- ko aukera izan dute animatu direnek: hala nola, sokatiran, tokan...».

Samaniego ikastetxeko ingu- rumen proiektuari buruz, berri- z, diote denek izan dutela haien ibilbidea ezagutzeko au- kera, eta, bereziki, eraikin be-

rriaren proiektuak jardun du- tela zehaztu dute: «Benetako interesa piztu duela azpimarra- tu nahi dugu: Espainiako Ingu- rumen eta Hezkuntza ministe- rioko arduradunen zorionak jaso ditugu, eta koordinatzaile nazionalak biltzen ziren foroan adibide gisa jarri zuten gure proiektua, ingurumenarekiko begirunearen isla delako, eta orain arte itxita zegoen atea irekitzea lortu dugulako».

Ekoeskolen Nazioarteko I. Topaketetako jardunari buruz- ko balorazio «oso baikorra» eginda, pozarren itzuli dira Arantxa Iruretagoiena eta Sil- via Mateo Espainiatik. «Duda- rik gabe, oso esperientzia aber- rasgarria izan da, eta berriz ere errepikatzeko moduko; ingu- rumenaren alde lanean gogoz jarraitzea animatu gaituen», azaldu dute.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaingoa: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga, J. Martin Jose
Iraola 10 (Tolosa). Telefona: 943 67 24 38.

Larraia. Elbarren 95 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetaaldea. 687 41 00 22

anoetaaldea@tolosaldeko hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Zakurra. Husky erme bat galdu da. Txuri-beltza, begi urdinekin. 6 urtekoa. Telefona: 617 639 049.

Giltzak. Barruan giltzak dituen oihalezko zorro bat galdu da, ustez Iruran. Deitu 669 414 002 telefono zenbakira.

GIZARTEA ▶

Batasuna kezkatuta Ertzaintzarekin

«Ertzaintzak izan duen jokiera larriarekin» kezka adierazi du Tolosako Batasunak. «Herriko tabernetara sartu eta argazkiak rekisatuz eta Madrilgo Entzutekira bidaltzen duen polizia eta hori egitera bidaltzen duen EAJk» zer bilatzen duten galdetzen du. «Beldurra eta intimidazioa nagusituz bakea eta demokraziari bizkar» ematen diotela salatu du Batasunak.

ZIKLOTURISMOA ▶

Azpiroz eta Leitza ingurura, bihar, Marraskilorekin

Iganderoko irteerakin jarraituz, 95 kilometroko irteera antolatu dute Marraskilo taldeko zikloturistek. Tolosatik abiatuta, Azpirozera joko dute; Jausaras, Beruete eta Uitz pasatu eta gero, Leitza zeharkatuz itzuliko dira Tolosara. 08:00etan abiatuko dira, elkartearen egoitzaren aurretik (Berazubi auzoa). «Zikloturista guztiak» gonbidatu dituzte Marraskilokoe.

NEKAZARITZA ▶

Nekazari izan nahi dutenentzat hitzaldia etzi

Datorren astelehenean, maiatzak 9, Nekazari Ganbarak hitzaldi bat antolatu du nekazari izan nahi dutenentzat. Nekazari berri eta gazteentzat dauden laguntzei buruzko informazioa emango dute. Nekazari etxeko bilera gelan izango da 15:30ean. Informazio gehiago nahiz izanez gero deitu 943 65 16 40 telefono zenbakira.

IKASTAROA ▶

Euskara irakasle izan nahi duenarentzat

AEK-k Glotodidaktika ikastaroa antolatu du euskara irakasle izan nahi duenarentzat. Hizkuntza irakaskuntzako oinarrizko prestakuntza eskainiko dute saio horietan. Hilaren 26a arte eman daiteke izena, 09:00etatik 12:00etara, Donostiako Antiguako AEK euskaltegian. Informazio gehiago Gipuzkoako AEK-ren bulegoan (Iztueta, 3-Donostia. 943 32 71 72).

MERKATARITZA ▶

Jaurlaritzaren diru laguntzak merkatarientzat

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak merkatariei zuzendutako diru laguntzak argitaratu ditu. Eskaria egiteko zenbait baldintza eta epe betetzea ezinbestekoa da. Informazio gehiago nahi duenak 943 16 06 73 telefono zenbakira deituta jasoko du epe, baldintza eta abarren berri; eskaria nola egin ere azalduko diote bertan.

IKASTAROA ▶

Sorosle eta sorospen ikastaroa, DYA Gipuzkoarekin

Hilaren 16tik ekainaren 3ra eskainiko dute, astegunez, 19:00etik 21:00etara

L. MONTES

DYA Gipuzkoak Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaroa antolatu du Tolosan. Hilaren 16an hasiko dira eskolak, baina dagoeneko izen-ematea zabaldu dute.

Ikastaroa egiteko «aurrez ezagupenik izatea beharrezkoa ez» dela azaldu dute DYAkoe. «Egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun» irakatsiko dute; besteak beste, bihotz eta birika susperketa, zauriak, erredurak... «Ezagupen arruntak dira, baina laguntza handikoak». «Modu eroso eta atseginean», teoria eta praktika uztartuko dituzte saioetan.

Hiru aste iraungo du ikastaroak, hau da, ekainaren 3a arte. Jesusen Alaben ikastetxean emango dituzte eskolak, astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara.

Ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak DYA Gipuzkoaren Sorosle titulua lortuko du. Gainera, ikastaroa gainditzeak Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) bi kreditu baliozkotzeko aukera ematen du.

60 euro balio du ikastaroak. Informazioa jaso edo izena eman nahi duenak 943 46 46 22ra deitu behar du. Ikasle kopurua mugatua dela adierazi dute DYAkoe.

HEGATS IGERIKETA ▶

Teknika hobetu, eta euskal taldeen arteko harremana sendotu

Teknika lantzeko Euskal Herriko infantilen topaketan hartu dute parte Tolosaldea IKTko hegats igeriketakoek

LEIRE MONTES

Iruñeko Amaia igerilekuak topaketa berezia hartu zuen duela egun batzuk: hegats igeriketako Euskal Herriko infantilen bilkura. Igerilarien teknika hobetzea zuen helburu topaketak. Baina, era berean, euskal taldeen arteko harremanak sendotzea ere bai. Hori guztiaz gozatzeko aukera izan zuten Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeko gaztetxoek (IKT). Eta bizitako esperientziarekin «oso pozik» itzuli dira.

Antolatzaileez gain, Ordizia, Zarauzko eta Tolosako taldeek hartu zuten parte topaketan. Asteburu batez, buru-belarri aritu ziren lanean, teknika hobetzeko asmoz. «Horrelako aukera askorik ez dugu izaten, eta guretzat oso esperientzia aberasgarria izan da. Askok ikasi dugu, eta beste taldeetakoekin ere primeran moldatu gara», adierazi dio HITZARI Grego Mancisidor Tolosaldea IKTko hegats igerilariak.

«Txapelketatik eta gehienek elkar ezagutzen» zuten, baina topaketak «esperientziak trukatzeko eta harremanak sendotzeko» balio izan die kirolariet. Guztien artean «giro polita sortu» zela diote.

IKTko lau gaztetxo izan ziren trebakuntza saio horietan: Eneritz Etxeberria, Mara Varela, Nere Karrera eta Uxue Gari-



Tolosaldea IKTko gaztetxoak eta nagusiak, topaketan. HITZA

kano, hain zuzen ere. Ez ziren, baina, taldeko ordezkari bakarrak. Izan ere, nagusien mailako lau igerilari entrenatzaile izateko ikastaroa egiten ari dira, eta topaketa horrek «praktikatzeko aukera» eman die guztiei. Hala, Ane Ezeizabarrenarekin batera —dagoeneko entrenatzaile bada hegats igerilari hori—, Grego Mancisidor, Jon Espina, Gorka Molina eta Ibai Orruñu izan ziren Iruñean.

Ostiralero, Igarondon

Tolosaldea IKT hegats igeriketako gaztetxoak ostiralero entrenatzen dira, 18:45etik aurrera, Igarondo igerilekuan. Taldekoek «12 urtetik gorako guztiei taldean hastera anima-

tu» nahi dituzte. Hegats igeriketan aritu nahi duenak ostiralean ordu horretan igerilekuan agertu besterik ez du.

Txapelketetan, maila ona

Denboraldian jokatutako probetan maila ona erakusten ari dira hegats igerilariak. Gorka Molina ibartarrak, esaterako, Espainiako txapelketa irabazi du.

Bestalde, apirillean Iruñean egindako Elkarteen Arteko Ligako probetan, nagusien taldeak erreleboetan irabazi egin zuten: Grego Mancisidorrek, Gorka Molinak, Patxi Monjek eta Jon Gastesik ordezkatu zuten Tolosaldea IKT. Nesketan, Ainhoa Tolosa eta Uxue Gari-

Roberto Jauregi

Roberto Jauregi (Belauntza, 1926-Tolosa, 2002) hil zela hiru urte beteko dira aurtan, eta hegats igeriketa taldekoak haren III. Oroimenezkoa ari da prestatzen. «Kirolari handiari, maisuari eta lagunari merezitako omena» egin nahi diote.

Hilaren 28an, larunbata, egingo dute Roberto Jauregi-ren III. Oroimenezkoa, Igarondo igerilekuan. Euskal Herriko eta Espainiako infantil mailako igerilaririk onenak lehiatuko dira bertan. Guztira, zortzi taldek hartuko dute parte; tartean, Tolosakoak. ◀



Roberto Jauregi. J. URRETABIZKAI

ARAMBURU
Salgai (Tolosa), Pisu igogailuarekin Larramendi kalean, 112 m², Berritua, Salgai (Tolosa), Pisu handia Gorosabel 40ean, Garajea aukeran
Salgai (Tolosa), Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².
Alokatzeko (Amezketan), 3 logelako pisua, Altzari eta garajearekin.
Alokatzeko (Alegia), 3 logelako pisua Altzariarekin.
Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosa), Garajea Pedro de Tolosa kalean eta Araba Etorbidian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

Artea omendu eta euskara lagundu

Nafarroa Oinezen eskultura erakusketa inauguratu zuten atzo Atxulondo kultur etxean

IMANOL GARCIA

Nafarroa Oinez eskulturen erakusketaren inaugurazio ekitaldia egin zuten atzo arratsaldean Atxulondo kultur etxean, Maiatza Saltsan kultur egitarauaren baitan. Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea eta Jasone Agirrezabalaga Kulturako zinegotziek ordezkatu zuten Udala eta bestetik, aurten Nafarroa Oinez antolatuko duen Iñigo Haritza ikastolaren lehendakaria eta zuzendaria izan ziren. Hilaren 22a arte izango da ikusgai erakusketa.

Nafarroa Oinezekoek hainbat artistari beren obra bat uztea eskatu zien, horiek saldu eta diruaren zati bat Nafarroako ikastolen alde emateko. «Artista horien artean parte hartu dute Euskal Herriko 17 eskulturgile punta-puntakoek», azaldu dio HITZARI Koldo Arnanzek, erakusketako arduradunak. Besteak beste, Nestor Basterretxea, Jose Ramon



Atzo goizean egin ziren bisita gidatueta 6 eta 8 urte bitarteko haurrek hartu zuten parte. AINHOA LARREA

Anda, Vicente Larrea eta Jose A. Lasa artisten eskulturak daude ikusgai. «Euskal Herri mailan dauden espresio ezberdinak bildu nahi izan ditugu: kontzeptualak, mitologikoak... eta material ezberdinetakoak: burdina, brontzea, egurra, ze-

ramika...», azaldu du Arnanzek. Eskultura hauek erosi daitezke eta beraz, interesa duenik, antolatzaileekin jarri behar du harremanetan.

Erakusketa aprobetxatuz bista gidatuak egiten ari dira. Atzo bertan, 6 eta 8 urte bitar-

teko ikasle zizurkildarrek aukera izan zuten erakusketa bisitatzeko Izaro Lizarragaren eskutik. Lizarraga berak azaltzen duenez, «eskulturak garaikideak dira eta beraz helburua haurrei begiak irekitzea da. Pentsatzen dute eskulturak

Erroma garaiko giza-figurak bakarrik direla eta horregatik horrelako eskulturak ikustea beste ikuspegi bat zabaltzen die». Hiru zatitan banatu ditu bisitak. Lehenengoan, arte garaikideari sarrera txiki bat egin die. Ondoren fitxa batzuk bete dituzte eskulturak aurrean ditzuzela, eta azkenik eskulan tailer bat egitea. «Beraiek ere eskulturak egin ditzaketela konturatzeko ere balio du egiten duten lana», dio Lizarragak.

Bestalde gogoratu behar da sukaldaritza ikastaroa egingo dela Maiatza Saltsan-en baitan. *Sukaldaritza aurreratua modu errazean* izeneko ikastaroa Andoni Arabaolaza irakasleak emango du eta hilaren 11tik ekainaren 22ra izango da, asteazkenero 19:30etik 21:00etara Urkamendi elkartearen. Izenemateak Aurrera plazako udal bulegoetan egin beharko dira (943 69 30 66), 30 euroko ordainketaekin batera, maiatzaren 9a baino lehenago.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Danborradaren marrazki erakusketa ikusgai Ikastolan etzitik aurrera

Festetako 'autoplay'-erako izen-emate epea hilaren 20an amaituko da

ERREDAKZIOA

Anoetako Ikastolaren ikasle guztiek parte hartu dute danborradari buruzko marrazkien erakusketan. Egindako marrazki guzti horiekin erakusketa bat egingo da. Hil honen 9tik 13ra izango da, Ikastolan bertan, eta 09:00etatik 17:00etara. Erakusketa ez ezik, sari banaketa ere egingo da. Eta hori

danborradaren egunean bertan egingo da, danbor hotsak amaitu eta gero.

Bestalde, haur danborradari dagokionez, izen-emate irekita dago eta udaletxean edo ikastolan egin daiteke, hilaren 13a arte. HH2 eta 3koek txapel eta danbor berdeak izango dituzte; LH1, 2 eta 3koek: txapel gorriak eta danbor gorri ertainak; LH4tik aurrera: txapel bel-

tzak eta danbor gorri handiak. Entseguak Ikastolan izango dira hilaren 19an, 17:30ean, eta hilaren 23an, 18:30ean, txarangarekin. Aurten barraketarako txartelak zozketatuko dira partaideen artean danborrada bukatu ondoren.

Festetan egingo den beste ekitaldi bat *autoplay*-a izango da. Hilaren 27an izango da, 19:00etan. Bi talde osatuko dira: A taldekoak, DBH3 arte, ikasturte hori barne; B taldea DBH4tik aurrera. Izen-emate epea hilaren 20a arte da eta Coviran supermerkatuan edo Ikastolan eman daiteke.

Sari ezberdinak izango dira. A taldekoentzat, garaikurra eta 80 euro izango da lehenengo saria; bigarrenentzat, 60 euro eta hirugarrenentzat, 40 euro. B taldekoen artean, lehenengoak garaikurra eta 50 euro jasoko ditu; bigarrenak 40 euro eta hirugarrenak 30 euro. Partaide guztiak 6 euro emango zaizkie.

VILLABONA ▶

Ekitaldi ugari Onddo gaztetxean

Villabonako Onddo gaztetzearen I. urteurrena dela-eta ekitaldi ugari prestatu dituzte hilabete guztian zehar. Gaurko egunean, lehenengo ekitaldia 11:00etan hasiko da, buruhandiek. Hurrengo ekitaldia 17:00etan hasiko da eta umeak izango dira protagonistak. Beraientzako jokuak antolatuko dituzte eta ondoren txokolatada izango da. Gauean bi ekitaldi egingo dira. Lehendabizi, 21:00etan hasita, bertso-afaria egingo dute. Ondoren musikarako tartea izango da. Nekin eta Tuboskapi taldeek kontzertua eskainiko dute. Datoren astean ere egunero izango da zer ikusi eta zer egin. Etzi, Alegira joateko gonbitea egiten dute Gaztetzekoek, *Irak eta Palestinako okupazioa* izeneko dokumentala ikusteko. Asteartean, argazki erakusketa egingo da Onddo gaztetzearan, 17:00etatik 20:00etara. Azken 25 urteren erreposoa egingo da. Asteazkenean, Ibarrao Gaztetzera joateko gonbitea. Bertan, 19:00etan, *Sozialismoa Irlandan* izeneko hitzaldia izango da eta ondoren zine-klub saioa, Psilozidek argitaratutako film laburra-ekin.

VILLABONA ▶

UEUra joateko Udalaren diru laguntzak

Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrei, Villabonako Udalak diru laguntzak emango dizkie matrikula ordaintzen laguntzeko. Informazio gehiago nahi duenak, Euskara Zerbitzura joan daiteke edo 943 69 35 01 telefonora deitu dezake.

ZIZURKIL ▶

Tolosaldeko II. Pilota Topaketa gaur arratsaldean

Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan Tolosaldeko II. Pilota Topaketaren partida bat izango da gaur arratsaldean. Eskuz banakako pilota partida izango da, senior mailakoen artekoa eta 4 t'erdian. Etxeberria eta Lizasok neuruko dituzte beren indarrak. Pilota partida 16:00etan hasiko da.

HOL - ATZ

PIPIEN AURKAKO
EGUR ETA ALTZARI
TRATAMENDUA

info@hol-atz.com • www.hol-atz.com
Tel.: 943 69 30 63 - Faxo: 943 69 40 59
Urtaki industrialdea, 30 - 20150 ADUNA

ASTEASU ▶ KULTURA

Pako Aristiren 'Gauza txikien liburua', Beterriko liburua 2004

Herenegun egin zuten sari banaketa; Aristik «euskal literaturaren datu pobreen» gaineko kezka azaldu zuen



Aristik idazleen alde hitz egin zuen saria jasotzean. XABIER UBEDA/AIURRI

ERREDAKZIOA

Herenegun Beterriko Liburuaren bederetzigarren sari-emaite ekitaldia izan zen Asteasuko Udal aretoan. Bertan, irakurleek 2004 urtean, gogokoen izan zuten liburua saritu zen. Epaimahai orokorreko kideen eta gainerako irakurleen artean, 37 proposamen jaso ziren. Proposamen horietatik, hamar jaso zituen Pako Aristiren *Gauza txikien liburua* lanak, Ur Apalategi, Harkaitz Cano eta Julen Gabiria idazleen lanek ere bost bototik gora izan zituzten. Irakurleen aldetik, aurreko urteetan baino parte-hartze baxuagoa izan den arren, Beterriko Liburua ekimenak euskal literatura sustatu asmoz, lanean jarraitzeko asmoa erakutsi zuen.

Ekitaldian, Larramendi Bazkuneko Jon Unanuek, Asteasuko alkate Iñaki Amenabarrek, Foru Aldundiko diputatu Fernando Tapiak eta Epaimahai Orokorreko epaimahaiburua Eloi Egibarrek osatu zuten mahiburua. Guztiek ere esker oneko hitzak izan zituzten irabazlearentzat eta liburuak saria eskuratzeko jasotako merezimenduak azaldu eta gero, larri bereziz koadernatutako liburu saritua jaso zuen Pako Aristik Iñaki Amenabarren eskuetatik eta agiria Fernando Tapiarenetatik. Segidan, Aristik hartu zuen hitza eta euskal idazlearen aldeko defentsa egin zuen zuzen bezain zorrotz. «Euskal literaturaren gaineko datuak oso pobreak dira, eta euskal idazleok gizartearen dugun lekua etsigarria da asko-

BETERRIKO LIBURUA ▶

SARITUAK

- 1996. Joxean Agirre, *Elgeta*.
- 1997. Ur Apalategi Iridin. *Gauak eta hiriak*.
- 1998. Koldo Izagirre *Nik ere Germinal! egin nuen aldari*.
- 1999. Lourdes Oñaederra *Eta emakumeari sugeak esan zion*.
- 2000. Ramon Saizarbitoria *Gorde nazazu lurpean*.
- 2001. Joseba Sarrionandia *Lagun izoztua*.
- 2002. Anjel Lertxundi *Zorion perfektua*.
- 2003. Bernardo Atxaga *Soinujolearen semea*.
- 2004. Pako Aristi, *Gauza txikien liburua*.

tan», esan zuen idazleak, besteak beste. Aristiren hizketaldiaren ondoren, Mikel Markezek urrestildarraren hainbat poesia abestu zituen. Luntxaren aurretik, Markez, Jexux Mari Lopetegi eta Aristi hirukoteak eman zioten amaiera ekitaldia *Jon zaharraren koplak* abestuz.

Pako Aristiren eleberria saritzeko arrazoiak ere azaldu zituzten ekitaldian. Batetik, gauza edo kontu txikiekin osatutako bizitzaren kontaketa delako. Kontaketa «biluzia, zuzena, sakona, sarkorra, bizia eta atsegina». Bestetik liburuaren azaletik hasita, «irakurlea bereganatzea lortzen duen lana» dela azpimarratu zuten. Halaber liburuaren erabiltzen duen hizkuntzari aipamen egin zioten «ulertaraza, naturaltasun osoz idatzia, baina zaindua bezain ladua» dela argudiatuz.

BALIARRAIN ▶ GIZARTEA

«Arrakastatsua» izan zen txekor-jate herrikoia

140 lagun inguru bildu zen «giro jatorrean» Baliarraingo pilotalekuan eginiko bazkarian

N. LATABURU

Iragan igandean Baliarraingo gazteen artean antolatutako txekor-jatea «urtero bezala arrakastatsua» izan zela adierazi dute antolatzaileek.

140 lagun hurbildu ziren herriko pilotalekuan eginiko bazkarira eta, eguraldia lagun, «oso giro polita sortu zen bertan». Gehiengoak baliarraindarrak ziren, bai eta inguruko herriko lagunak eta familia artekoak. Bezperan xe-

hetasun guztiak prest zituzten herriko emakumeek. Hala ere, berrikuntzarik ere izan zen, izan ere, aurreko urteetan ez bezala, gizonetako aritu ziren sukaldean, zerbitzatu zuten eta ondorengo harrikoia beraiek egin zuten.

Dagoeneko usadio bilakatu da maiatzaren lehenean txekor-jatea egitea eta bildutako dirua —1.300 euro inguru— herriko gazteen kontura doa, festak eta bestelako ekitaldi kulturalak prestatzeko.

ALDABA ▶ GIZARTEA

Jesus Bauza maisuaren ardoa dastatzeko eskola

Bodegas Cadarsoko adituek ordu eta erdiz jardun zuten ardoaren ezaugarriari buruz



Ardo adituek aho bete hortz utzi zituzten bertaratua. N. LATABURU

N. LATABURU

Jesus Bauza enologoak maisutasunez agertu zituen, Aldabako tabernan bildu ziren 40 pertsonen aurrean, ardoak dastatzeko sekretuak eta ezaugarriak. Jendea ere oso «gustura» geratu zen ikastarorekin, Jose Ramon Emanal-

de tabernako jabeak adierazi zuenez. Sei ardo dastatu zituzten: txuri bat, urteko bat, bi krianzia eta erreserba bat.

Hitzaldiak ordu eta erdi irauz bazuen ere ardo festa goizeko ordu txikiak arte luzatu zen, eta udazkenean beraien Tresalas bodegara joatea hitzartu zuten.

iragarki laburrak ▶

Kutxak eta banketeak. Lekuak libre. Sartzeak laster. Informatu. 943 22 46 85.
Peoiak, igeltseroak, soldadoreak, mantenimendukoak. Sartzeak laster. Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria, Antzuola, Zerain,

Mendaro, Villabona. Informatu. 943 22 46 85.
Sukaldeko laguntzaileak, garbitzaileak, sukaldariak, tabernariak. Sartzeak laster: ikastebeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu. 943 22 46 85.

Administrari laguntzaileak. Sartzeak laster. Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu. 943 22 46 85.
Gidariak. Sartzeak laster: udalebeak, Eusko Jaurlaritza, Foru

Aldundia. Informatu 943 22 46 85 telefonoan.
Harreragileak, telefonistak. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 22 46 85.
Administrari laguntzaileak.

Liburutegiak, informatika. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa doan. 943 22 46 85.
Udaltzainak. 25 plaza libre udalekueetan: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informazioa doan. 943 22 46 85.

IBARRA ▶ KIROLA

Ibarrak ezin izan dio Peñucas-i aurre egin

Ligako liderraren aurka 2-5 galdu zuten ibartarrek; maila mantentzea zaila du Ibarrak beste taldeen menpe baitago

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrak areto futbol taldea gogor saiatu bazen ere, herenegun Peñucas liderraren aurka jokatu zuen partida ez zuen irabazterik izan. Norghegiak oso gogorra izan zen eta azken unerarte ez zen erabaki.

Ibarrakoak joko ona egiten hasi ziren, eta nabaria zen jokalariek bazekitela hil ala biziko partida zela. Horrela, 3 minutuan Pradosek lapurtutako

baloia batetaz baliatu zen Ustaritz eta sare barruan sartu zuen 1-0koa eginez. Baina pozak segundo gutxi iraun zituen hurrengo jokaldian Peñucas-ek sartu baitzuen ibartarren ate barruan.

Berdinketaren gola ahaztuta Ibarrak gogor jarraitu zuen erasoan, baina Peñucas-ek kalitatea handia duela erakutsiz bigarrena sartu zuen. Hamaseigarren minutuan, ordea, Labakak egindako jaurtiketa ate-

zainak urrundu eta Ayerzak baliatu zuen gola egiteko. Une honetatik atsedendira bitarte Ibarrak gol gehiago egin ahal izan zituen, baina Peñucas-en defentsa gogorrek eta atezainaren lan onak oztopatu zituen aukera guztiak. Victorren lesioa ere gertatu zuen atsedendiaurrean.

Bigarren zatian gauzak ez ziren gehiegi aldatu, eta hirugarren minutuan iritsi zen partidara erabaki ahalko zuen jokaldia;

Pradosek jaurti zuen baloia eta zutoinean eman ondoren atezain marra ondotik igaro zen baina ez zen sartu. Jarraian etxekoek beste jaurtiketa bat izan zen eta kasu honetan atezainak gelditu zuen.

Jokalariek nekaturik zeudela eta Cesar Roca entrenatzaileak aldaketak egin beharra izan zituen, eta juvenilen taldeko 3 jokalaririk erabili beharra izan zituen. Une horretaz baliatuz Peñucas-ek 2-3koa egin zuten 30. minutuan. Ibarrakoak saiatu ziren partidari buelta ematen, baina Peñucas-ekoek gelditu egiten zuten jokoa, hori baitzen beraiek nahi zutena. 7 minutu geratzen zirenean kontreraso batean 2-4koa sartu zuen Peñucas-ek, eta azken minutuan bosgarrena egin zuten.

Zaildu egin zaio Ibarrari egotera, orain beste taldeek egiten dutenaren menpe baitatude.

IBARRA ▶

Emaitza onak ari dira lortzen gimnastika erritmikokoak

I. TERRADILLOS

Arrasaten jokatu zen B mailako Eskolarteko Gimnastika Txapelketan Belabieta gimnastika erritmikokoak emaitza onak lortu zituzten. Onintza Odriozola 11. postuan geratu zen, eta Maider Urruzola infantiletan hirugarren geratu zen, beraz, Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko du. Aipatzekoa da Sorondo eta Angulo entrenatzaileek egindako lana.

Bestalde, gaur Gipuzkoako Txapelketan A mailan lehiatuko dira Bergaran Esnaola, Egiguren eta Otegi.

BERASTEGI ▶ KIROLA

I. TERRADILLOS

Mundu mailako eskolen arteko Coca Cola Futbol Txapelketako lehen fasea jokatu berri da eta Orixe taldea izan da Donostia mailako txapelduna. Pasa den igandean jokatu zuten Zubietan Orixeok San Jose Prim taldearen aurka lehenengo faseko finala eta 5 eta 1 irabazi zieten.

13 urtetik 15 urte bitarteko 11 berastegiari eta gainerantzekoak Tolosaldekoak dira. Iker Saizar entrenatzailea ere berastegiaria da. Berak azaldu duenez partida guztiak ez dira finala bezain errazak izan, finalerdikoan lehia oso bizia izan baitzen eta penaltietan erabaki beharra izan zen partida. Denora lau partida irabazi dituzte eta hurrengo faserako txartela eskuratu dute horrela. Gainera, jokalaririk onena Orixeokoa izan da, Mario Zubelzu berastegiaria hain zuten.

Bigarren fasea ekainaren 27tik aurrera jokatu da Ka-

Eskolen arteko Coca Cola Txapelketan, Orixe taldea Gipuzkoako txapelduna

Taldea osatzen duten jokalaririk gehienak eta entrenatzailea berastegiarrak dira

narietako Las Palmas-en (Espainia) eta han bilduko dira parte hartu duten 26 probintziatzen irabazle suertatu diren taldeak. Las Palmas-en irabazle surtatzen direnak Koloradon (AEB) jokatu den azken faserako txartela lortuko dute. Donostiako ordezkaria Orixe izango den bezala, Bilbok eta Iruñeak ere berea izango dute. Gasteiztik ez da ordezkariarik izango ez baitu parte hartu txapelketan. Donostiarantz lehendabiziko aldia izan da mundu mailako txapelketa honetan parte hartzen duela.

Herrian aritu izan da Iker Saizar entrenatzaile moduan. Orain salto handia eman dezakete denek, bigarren fasea irabazi ezker munduko kopan amestu baitezakete.



Orixe taldea Iker Saizar entrenatzailearekin. HITZA



Badator Ibarrako II. Garagardo Festa

IBARRA ▶ Datorren maiatzaren 19, 20, 21 eta 22an egingo da Ibarrako II. Garagardo Festa. Aurten 3 karpa jarriko dituzte plazan eta 700 pertsonari jaten emateko lekua izango da. Inportazio 19 garagardo mota egongo dira,

eta aurten, 5 kalimotxo mota ezberdin jartzea erabaki dute. Festa antolatzen duten herriko taldeentzat diru laguntza lortzea eta auzolanaren bitartez herri giroa bultzatzea izaten du helburu Garardo Festak. HITZA



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

LEITZA ▶ MENDI ASTEA

Argazki erakusketa: zaletasunaren isla

Teknika desberdinez ateratako irudiak daude ikusgai



Ibxitura elurtuaren irudiak jaso zuen lehen saria. MENDIBIL



Mendi goien irudiak ere badira. MENDIBIL



Herri inguruko paraje zabalen irudiak –ezkerrekoa– edo landare,azienda eta bestelako irudi zehatzagoak ere –eskuineko Amanita muscaria-rena kasu– ikusgai daude. MENDIBIL



JAIONE ASTIBIA

Mendi Astearen baitan, zine-man argazki erakusketa egon da ikusgai: Mendibil mendi taldeak bere garaian antolatutako argazki lehiaketako hamaika parte-hartzaileen irudiez osatutakoa. Bakoitzak biz-

pahiru argazki hantxe ditu zintzilik eta guztien artean sorta polit askoa osatua dute.

Irudi oso desberdinak daude: paraje zabalenak edo itxiak, bertakoak edo ez, orokorrak edo xehetasunezkoak, bi-txiak... Argazkigilearen zaletasunaren isla izan daiteke ba-

koitza; eta erabilitako teknika ere desberdina da batetik bestera, atera nahi izan duten irudi bakoitzaren arabera. Baina han-hemen ateratakoak izanik ere, guztiek badute amankomuneko ezaugarria: guztiak naturari lotutako irudiak dira.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Udalak Guardia zibilaren jokabidea salatu du

Hiru agente uniformedun tabernaz taberna ibili omen ziren «edanda» apirilaren 24ean

J. ASTIBIA

Leitzako Udalak, apirilako ohiko batzarrean, Guardia Zibilak «herritarren eragindako mehatxu eta beldurra, eta egoera arriskutsua» salatu zuen eta «Leitzatik, Euskal Herri osotik bezala, joan dadin» eskatu.

Larrain herri plataformak aurkeztutako mozioak zioenez, «herritar askok ikusita-koaren testigantza» zuen oinarri, salatutako gertaerak. Horrela, apirilaren 24ean, «ordu ttikitan sirena joka», gero «herri erdian kontrola jarri» eta ondoren Guardia Zibilako hiru agente, «uniforme

osoarekin», Leitzan tabernaz taberna ibili omen ziren. «edanda», «bertako langile eta bezeroak izutuz», azkenik, Torrea tabernatik, «patrulla bat azaldu eta eraman» zituen arte.

Gertakari hauek «indar hauen prepotentzia eta inpunitearen adierazle» modura jotzen zituen eta hori «ez dela jokabide isolatua», zioen, «beren armekin bezeroak zuzenean apuntatzera» ere iritsi izan direla gogora ekarriz.

Mozioarekin, bat egin zuten, osotasunean, Aralar taldeak eta EAK; eta UPNK ere bat egin zuten, gertakizunen salaketari zegokienean.

ARESO ▶ GIZARTEA

Santa Krutz ermitara erromes joanen dira

Bihar, 11:00etan aterako dira eliz-ataritik

J. ASTIBIA

Biharko dute egina hitzordua aresoarrek, Santa Krutz ermitara erromesaldia egiteko: 11:00etan aterako dira eliz-ataritik. Normalean maiatzeko aurreneko igandean egiten badute ere, maiatzaren 3an izaten baita Santa Krutz egu-

na, aurtun astebete atzeratu dutela eman zuten jakitera atzo. Baina, edozein moduz, gurutze-bidea egin ondoren, «indarrak berreskuratze», ermita atarian hamaiketako banatuko omen dute ohiturari jarraituz, «baterekin eta bestearekin jolasean aritzeko aitzakian».

hitza

txokoa^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaia k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko maiatzaren 7a, larunbata ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abasolo, Aduna, Aburtu, Alegia, Alkiza, Alzo, Amorebieta, Anotoa, Anso, Balamán, Belantza, Berastegi, Berrota, Esluan, Hermaldio, Ibañeta, Irujo, Irujo, Irujo, Leizor, Oteiza, Oteiza, Tolosa, Villabona, Zuzuri
Besteak: Leizaldeko Euskararen Biltzarra

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jauriaritza.
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA



16

hotzena

10

BIHARKO
EGURALDIA



943 30 43 46

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu. Kirolaren III.

Jardunaldiak: Eskola Kirola Eguna Pello Errota ikastetxean 10:30etik aurrera. Haurren arteko kirol topaketak izango dira.

Berastegi. 13. Ibilaldi Neurtua bihar. Izen emateko 943 68 35 35 zenbakira deitu edo ateratzeko orduan bertan.

Leizta. Herriarteko Pilota Txapelketa Amazabal pilotalekuan 17:00etan. Aurrera pilota taldeko eta Lizarrako San Migel taldeak.

Tolosa. Txinpartaren 75. urtemugan, erlojuaren berrinaugurazioa 12:30ean. Juan Garmendia Larrañagak eta Ander Letamendiak bere historia azalduko dute eta ondoren *lunch* bat izango da.

Tolosa. Altzari zaharrak eta almonedak egongo dira ikusgai eta salgai Ferialekuan

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara. **Tolosa.** Aitor Ventureiraren euskal inauteriei buruzko argazkiak jarriko dira gaurtik ikusgai Ganbara arropa denda (Gudari 16).

Tolosa. *Tolosa, hiri euskalduna* kanpaina: 16:00etan haurrentzat puzgarriak eta euskaraokoa plaza Berrian; 19:30ean bertsolariak Abastos plazan; 21:00etan afaria bertan trikitilariekin; eta 24:00etan DJ festa herriko tabernetan: DJ King Eguzki tabernan, DJ Martuja Orbelan, DJ Arabo Meskalen, DJ Umeentzat Bikutzen, DJ F.Rojo Rakun eta DJ Ielxun.

Tolosa. Manuel Aranguren frantziskotarraren urrezko ezteiak direla eta, omenaldia egingo zaio San Frantziskon 11:00etako meza nagusian. Ondorioz, 12:00etako meza ordu erdiz atzeratuko da.



Calcutako bizimodua

TOLOSA ▶ Calcutako bizimoduaren argazkiak ikus daitezke egun hauetan Aranburu Jauregian, Calcuta Ondoan eta San Bartolome misio taldeak antolatutako erakusketan. Iaz Tiritijain ikasleekin egindako kanpainaren berri ere ikus daitezke jarritako hormirudian. J.SAIZAR

Villabona. Tolosako Hodeiertz abesbatzak kontzertua eskainiko du Jesusen Bihotzaren elizan 20:00etan.

GAZTETXEAK

Anoeta. 6. urtemugan, patata tortila herrikoia eguerdian; ondoren bazkaria; 17:00etan jolas herrikoia; ondoren poteoa; 21:00etan afaria; 22:30ean gazteen antzerkia; Izeba Pilarren ilobak eta beste talde bat; eta birrisklas festa.

Villabona. I. urteurrena: 11:00etan buruhandiak; 17:00etan umeentzako jokoak; ondoren txokolatada; 21:00etan bertso-afaria; eta Nekin eta Tuboskapi taldeen kontzertua.

ZINEMA

Tolosa. *Habana blues.* Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean.

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Zorionak Bisbi. Ondo pasa eta kontuz edanarekin. ????



AGURRA

Maria Josefa Tolosa Balerdi (Ugarte).

Nahiz eta 2 urte izan joan zirela/
konturatu gera gurekin zaudela,
kimu berri bat jaio zaizula.

POLIMEROEN INJENIERITZA IKAZI DUT ETA ORAIN PROIEKTU GARRANTZITSU BATEN ARDURADUNA NAIZ ENPRESA BATEAN.

POLIMEROEN INJENIERITZA ATEAK ZABALIK

Maiatzaren 12an 19.00etan / Maiatzaren 26an 19.00etan

Tf. 94 616 90 02
www.learatik.com

**ZEN INTERESGARRIA!
BA NIK ERE POLIMEROEN
INJENIERITZA IKAZIKO DUTI**

NIK ERE PASADAN URTEAN BUKATU NUN KARRERA ETA IKAŠTURTE HONETAN DOKTORAUTZA EGITEN ARI NAIZ.